



KINTANARENA

Materiala:

Fitxak, arbelak eta errotulagailuak.

Jokatzeko era:

Gidariak talde guztiei fitxa bana emango die, denei berdina; edo fitxa handi bat jarriko du guztien begi-bistan, orman edo arbelean. Fitxa horretan guk aukeratutako hitz bat agertzen da eta lau azalpen. Horietako bakarra da zuzena. Jokalariek zein den asmatzen ahalegindu behar dute. Erantzuna arbelean idazteko minutu bat izango dute. Horrela, fitxak agortu arte. Gehien asmatzen duen taldea da garaile.

1. ankerra

- Bihotz gabea, gaiztoa.
- Ibiliz gero, pozik gaude.
- Hitz egiten dugunean, pozik gaude.
- Jaten dugunean sabelean pozik omen dago.

